NAFARROA

#SOSPRESOAKCOVID19

Salhaketa Nafarroa | Etxerat | Altsasuko Gurasoak | Sare Herritarra

sospresoakcovid19@gmail.com

1. SARRERA

Otsailaren bukaeran, gobernu autonomikoak eta Espainiako Gobernua zenbait neurri hartzen hasi ziren Covid19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko asmoz.

Espetxeen gaiari dagokionez, Espetxeetako Idazkaritza Nagusia ere neurriak hartzen joan zen pixkanaka (bai edukian bai espetxe kopuruan). Azkenik, martxoaren 12an, Idazkaritzak espetxe guztietara bidali zituen ordutik aurrera aplikatu beharreko neurriak, hitz gutxitan laburtu daitezkeenak: kartzela guztiak bakartzea.

Bestalde, osasun krisia hasi zenetik, espetxeen arloko kolektibo sozialak eta giza eskubideen defentsan aritzen direnak oso adi egon dira Espetxeen Idazkaritzak hartzen zituen erabakiei. Horrenbestez, martxoaren 10ean, dozena bat taldek Estatuko Herriaren Defendatzaileari eskatu zioten Idazkaritzak hartutako neurriak azter zitzala, eta gauza bera eskatu zioten Nafarroako Arartekoari ere. Idatzi horren atzetik beste batzuk igorri ziren Idazkaritzara bertara, Barne Ministeriora, Diputatuen Kongresura eta Europako Parlamentura, bai eta Nafarroako Parlamentuko Barne eta Justizia Batzordera ere. Bidalitako idazki horietan guztietan, presoen oinarrizko eskubideak babesteko presako neurriak hartzea eskatzen zen.

Nazioarteko zenbait erakundek ere plazaratu dute beren iritzia, osasun krisi honetan presoei arreta berezia eman beharra adieraziz, bai eta horretarako neurri nagusiak presoak kartzelatik ateratzea izan behar duela ere. Hauek dira horren adibide batzuk:

- Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi duenez, aintzat hartu beharko litzateke askatasuna kentzen ez duten neurriez baliatzea justizia penala ezartzen den etapa guztietan, eta, horrekin batera, lehenetsi beharko dira askatasuna kentzen ez duten neurriak, batez ere, presuntziozko delitugileen kasuan eta arriskuko txikikoak diren eta egoera bereziki ahulean dauden presoen kasuan, lehentasuna emanez haurdun dauden emakumeei eta beren kargura seme-alabak dituzten emakumeei.

- Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak printzipio-adierazpen bat onartu du, honakoa ezartzeko: “Hurbileko kontaktu pertsonalak laguntzen duenez birusa hedatzen, agintarien ahalegina bideratu beharko litzateke, batez ere, askatasun pertsonala kentzea ez dakarten neurriak erabiltzera (...). Horrez gain, kasuan kasuko agintariek askatasuna kentzea ez dakarten neurriak erabili beharko lituzkete maizago, behin-behineko espetxeratzearen ordez, hala nola zigorraren kommutazioa, baldintzapeko askatasuna eta behin-behineko askatasuna; nahitaezko osasun tratamenduen berrikuspena (TSO), desgaitasuna dutenentzako edo zaharrentzako instalazioetako egoiliarren baja edo egokitzapena”.

Duela gutxi, erakunde sozial askok zenbait kexa plazaratu dituzte, eta horien bidez Barne Ministerioari eskatu diote nazioarteko erakundeek gomendatutako printzipioak eta neurriak

berehala aplikatzeko; horren harira, Espainiako Herriaren Defendatzaileak adierazi du galdera hau egin diola Espetxeetako Idazkaritza Nagusiari:

"*...ea aplikatzen ari diren Osasunaren Mundu Erakundeak eta Europako Kontseiluaren Torturaren Prebentziorako Batzordeak COVID-19aren arazoari espetxeetan heltzeko eman dituen gomendioak, Herriaren Defendatzaile honek osotara bere egiten dituenak*".

Halere, Barne Ministerioak eta Espetxeen Idazkaritza Nagusiak ez dituzte oraindik ezarri eskatu zaizkien neurriak.

Egoera honen aurrean, eta kontuan hartuta beharrezkoa dela presoen eskubideak errespeta daitezela eskatzen segitzea, **Salhaketa Nafarroak**, **Sare Herritarrak**, **Etxeratek eta Altsasu Gurasoak** plataformak abian jarri genuen **SOS PRESOAK COVID-19** kanpaina, Nafarroako gizarteari dei egiteko, Espainiako Gobernuari behin eta berriz egindako eskaera babes dezan: COVID-19aren aurrean, presoen eskubideak errespetatzen dituzten neurriak har ditzan.

2. PRESOAK KARTZELATIK ATERATZEAREN ALDEKO ERABAKIA BEHAR DA

Krisiaren hasieratik, gizarte entitateok eskatu dugu presoak kartzelatik ateratzea, Covid-19aren kutsapenaren prebentziorako neurri onena delakoan, eta hori delako, hain zuzen ere, nazioarteko hainbat erakunderen iritziz hartu beharreko neurri nagusia, lehenago aipatu dugunez.

Kontuan hartu beharra dago preso daudenen bizi-baldintzak direla eta (jende pilaketa, hurbiltasun eta kontaktu fisikoak), zaila dela betetzea osasuneko gutxieneko neurriak, hau da, distantziak, higienea eta abar. Horri gehitu behar zaio preso daudenek ezaugarri soziosanitario bereziki ahulak dituztela, eta horrek arriskua areagotzen duela birusak kutsatuz gero.

Era berean, esan beharra dago bizitzarako eta osasunerako eskubidea bermatu behar zaiela presoei aske daudenei bermatzen zaien gisa berean, eta, horregatik, osasunari dagozkion irizpideak espetxeetan ere aplikatu behar dira.

Presoak askatzea helburua duten neurriak aplikatzea positiboa da bai osasunaren ikuspegitik (kartzeletan toki gehiago egongo litzatekeelako presoak modulu desberdinetan banatzeko eta pilaketak ekiditeko, eta horrela printzipio zelularra bete daitekeelako -preso bat ziega bakoitzeko-, 1979an legez hartutako printzipioa baita eta orain inoiz baino beharrezkoagoa bihurtu dena, eta distantzia soziala betetzea ahalbidetzeko) bai tratamenduaren ikuspegitik (erregimen irekiaren erabilera intentsiboaren aldeko apustua eginez).

3. PRESOAK KARTZELATIK ATERATZEKO PROPOSAMENAK

GAIXORIK DAUDEN PRESOAK ETA 65 URTEZ GORAKOAK

Osasun agintariek ezarri dute 65 urtez gorakoak eta gaixotasun kronikoak dituztenak arriskuko populazioa direla, Covid19ak kutsatzeko sentiberagoak eta ahulagoak direlako. Neurri bereziak hartu dira populazio sektore horrentzat, babesa eraginkorragoa izan dadin. Arreta berezia eman zaie, halaber, osasun mentaleko arazoak dituztenei. Hortaz, 65 urtez gorako presoak eta gaixorik daudenak ere bereziki ahulak diren pertsonen taldean sartu behar dira.

Askatasuna kenduta duten pertsonei dagokienez esan behar da Espainiako Espetxeetako Idazkaritza Nagusia dela, Europakoen artean, 65 urteko edo gehiago preso gehien dituenetako bat (Turkia -3.521 preso-, Erresuma Batua (Ingalaterra eta Gales) -2.995-, Errusia -2.895-, Italia -2.247-, Frantzia -1.448-, Polonia -1.322- eta Espainia -1.263-).

Horrekin batera, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak berak emandako datu ofizialen arabera, bere menpeko kartzeletan 1.661 presok dute desgaitasun psikikoa, 327 presok adimen desgaitasuna, eta 1.098 presok desgaitasun fisikoren bat. Ohikoa da lehendik patologia serioak, kronikoak edo adinak larriagotutakoak dituzten presoek patologia ugari izatea, zeinak, *oso larriak eta sendaezineko gaitzaren* kalifikazioa izan gabe, presoa oso egoera ahulean jartzen baitute Covid19aren kutsapenaren aurrean.

Horri guztiari gehitu behar zaio beste arazo bat: 2019an, Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren menpeko espetxeetako medikuntzako langileak 285 sendagile eta 6 psikiatra ziren. Profesionalen kopurua espetxeetan behar den moduko osasun arreta emateko beharko litzatekeena baino nabarmen txikiagoa da, eta hala onartu dute Idazkaritza Nagusiak berak eta Barne Ministerioak.

Gaur egungo legeriaren arabera, aukera dago pertsona horiei hirugarren gradua ezartzeko, 86.4 artikulua edo 104.4 artikulua erabiliz. Posible da, halaber, baldintzapeko askatasuna ematea eta, horren ondorioz, aske uztea 70 urtez gorakoak presoak edo/eta gaixotasun kronikoak dituztenak. Eskatzen dugu, beraz, bitarteko horiek aplikatzea adinagatik edo gaixotasunagatik egoera bereziki ahulean dauden preso guztiei. Eta, egoera kontuan hartuta, eskatzen dugu espetxe arloko legerian 70 urtez gorakoentzat aurreikusita dauden neurri guztiak aplika dakizkien 65 urtez gorakoei ere, osasun agintarien iritziz adin horretatik gorakoak jo behar direlako arriskuko pertsonatzat.

HAURDUN DAUDEN EMAKUMEAK ETA/EDO SEME-ALABAK BERAIEKIN DITUZTENAK ZIGORRA BETETZEN

Pandemia honetan, osasun agintariek erabaki dute haurdun dauden emakumeak ere arriskua duten pertsonak direla, lehendik izan ditzaketen arriskuei gehituta. Haurrei dagokienez, haien osasuna babesteko hartu diren neurriak bideratu dira gehienbat bakartze soziala ezartzera, etxean

babestuta geldi daitezen. Neurri horiek kartzelan dauden emakumeei eta umeei ere aplikatu behar zaizkie haien osasuna modu berean eta berdintasunez bermatzeko.

Kasu hauetarako guztietarako bidezkoa da berehala aplikatzea legeriak eskura jartzen dituen bitartekoak, eta, zehatzago esanda, denak kartzelako hirugarren gradura pasatzea, kartzelatik ateratzeari buruzko 86.4 artikuluan jasotako bidea erabiliz

ESPETXEKO HIRUGARREN GRADURA PASATZEA

Zigor laburrak dituzten presoak edo alarma egoera deklaratu aurretik askatasun baimenak zituztenak aske utzi behar dira 86.4 artikuluan jasotzen den aukera erabiliz, hirugarren gradura pasatuz alegia. Berdin egin behar da dagoeneko zigorraren hiru laurdenak bete dituztenekin, Espetxe Zaintzako epaileari baldintzapeko askatasunerako proposamena igortzeaz batera.

Era berean, askatasuna kentzea ez diren neurriak aztertu eta aplikatu behar dira egoera nabarmen ahulean dauden beste pertsona batzuen kasuan: osasun mentaleko arazoak dituzten presoak, drogamenpekotasun arazoak dituzten presoak, kartzelatik kanpo erantzukizun familiarrak dituzten presoak... ahalik eta preso gehienentzat kartzelaz kanpoko baliabideak erabiliz eta horretarako prestatuz.

ZIGORRA ETXETIK URRUN BETETZEN ARI DIREN PRESOAK:

Espetxeetako Erregelamenduak ezartzen du presoek erroturik dauden tokian bete behar dutela zigorra, baina errealitatean gauzak oso bestelakoak dira.

2017ko abenduaren 31ko datu ofizialen arabera, preso nafarrak edo Nafarroan erroturik daudenak 395 dira. Haietatik 218 Iruñeko kartzelan betetzen ari dira zigorra, eta 117 beste autonomia erkidego batzuetako kartzeletan. Horrek esan nahi du preso nafarren edo Nafarroan erroturik dauden presoen % 55 Iruñeko kartzelan dagoela zigorra betetzen eta haien % 45 beste autonomia erkidegoetako kartzeletan.

Egia bada ere zigorra norbera erroturik dagoen tokitik kanpo dagoen kartzela batean betetzen egotea ez dela kartzelatik ateratzeko arrazoi bat, kontuan hartu beharreko egoera da, ordea, ezarri diren eta ezarriko diren neurriek pertsona horiengan duten edo izan ditzaketen ondorioei begira.

4. KARTZELETAN EGOERA "NORMALIZATZEKO" NEURRIAK COVID-19aren ORAINGO FASEAN

Martxoaren bukaeran alarma egoera deklaratu zenetik, populazioarentzako konfinamendu neurri batzuk ezarri dira. Behin eta berriz salatu dugunez, neurri horiek bereziki larriak izan dira preso daudenentzat, haien eskubideak urratu dituzte, eta presoen egoera ezkutuan gelditu da. Horrez gain, presoen kasuan ez dira lehenetsi osasun irizpideak, eta ez zaie osasunerako eta bizitzarako eskubidea bermatu aske dagoen populazioari bermatu zaion modu berean.

Berriki, hizketan hasi dira "normaltasunera" itzultzeko eta alarma egoerari amaiera emateko deskonfinamendu plan bati buruz, baita hura prestatzen ere. Fase honetan behar-beharrezkoa da presoak aintzat har ditzatela eta deskonfinamendua kartzeletara irits dadila gizarte osora iristen den erritmo berdinean.

Horretarako, neurri hauek hartzea eskatzen da:

1. Komunikazioen arloan

- Egoera guztiz normalizatu arte (hau da, espetxeen arloko legeriarekin bat presoen eta familiakoen arteko komunikazioak egitea posible izan arte) hau egin beharko da:

    - Gehitu diren telefono deiak mantendu (asteko deien kopurua 10etik 15era igo zen) eta doakoak izan preso guztientzat.
    - Bideo-deiak egiteko aukera mantendu eta kopurua nahiz iraupena handitu (ez izatea 8 minutukoak, telefono deiak bezala). Horretarako, premiazkoa da sakelako telefono gehiago sartzea kartzelan. Dei horiek ere doakoak izan behar dute.
    - Egungo egoeraren proiekzio gisa, etorkizunean ere mantendu beharko da asteko 15 deiren kopurua. Horrez gain, bideo-deien sistema mantendu behar da familiartekoekin eta gertukoekin komunikatzeko. Eta aplikatu beharko da Espetxeetako Erregelamenduaren 155. artikuluan jasotako baimen berezien osagarri gisa (gaixorik dauden familiartekoei dei egitea, heriotzak edo jaiotzak gertatzen direnean…). Bideo-dei horiek ez dira inola ere baimen berezien ordezko, eta kezka egoeretarako tresna positibo bezala erabili behar dira.

- Aurrez aurreko komunikazioak berriz ezarri:
    - Lehendabizi, eta epe motzean, edo, bestela, kanpoan egiten den aldi berean, bizikide ez diren familiakoekin harremana izatea baimentzea, bisita arruntetan edo lokutorioetan.
    - Posible izan bezain laster, pandemiaren bilakaera ikusita eta, edozein kasutan, kanpoan kontaktu handiagoa izateko baimena ematen den aldi berean, bisita bereziak edo vis a vis motakoak. Horretarako, neurri egokiak ezarriko dira kutsapenak ekiditeko, gizartean erabiltzen ari diren parametro berdinekin: ziurtagiri sanitarioak, komunikazioaren aurreko test azkarrak erabiltzea, PCR probak aurreko egunetan… Bisitarako egun gehiago jarriko dira, bisita txandetan jende kopurua gutxitzeko.

- Prozesu honetan inor atzean ez gelditzeko, Iruñeko kartzelara ekarriko dira preso nafarrak edo Nafarroan erroturik daudenak, hala nahi dutenak. Presoak beren

ingurune sozialetik eta familiarengandik urruti mantentzeak, espetxe arloko legeriaren kontrakoa izateaz gain, urratzen edo galarazten du komunikazioetarako eskubideaz baliatzea eta gizarteratzeko prozesua. Gainerakoan, baimena eman beharko zaie familiei eta gertukoei beste kartzela batzuetara joateko.

2. Tratamenduaren eta birgizarteratzearen ikuspuntutik

- Eguneroko ohiko bizimodura bueltatzeko behar diren neurri sanitarioak, higienikoak eta profilaxikoak hartu. Espetxeak materialez hornitu, preso eta langileen artean banatzeko: maskarak, eskularruak, hidrogela edo desinfektatzailea, behar den kantitatean eta berrerabiltzeari dagokionez kanpoan erabiltzen direnen antzeko irizpideekin.
- Osasun langileen arloan dauden egiturazko hutsuneak konpondu, sendagileen, erizainen eta OLTen lanpostu hutsak bete, zerbitzu medikuak indartu, zenbait sektore zehatzen behar espezifikoei erantzuteko, eta osasun sistema orokorrekiko koordinazioa hobetu. Iruñeko kartzelaren kasuan premiazkoa da Nafarroako Gobernuak bere gain hartzea barruko osasun zerbitzuaren eskumena.
- Tratamendu Batzordeen bileretarako legezko erritmoa berreskuratu, eta, horrekin batera, erabakiak hartzekoa ere, presoen sailkapenaz, baimenak emateaz eta programatutako irteerez.
- Behar diren segurtasun neurriak hartuta -hau da, kanpoan betetzen diren pauta eta estandarrekin bat-, berreskuratu tratamenduko jarduerak, okupazionalak, kirol, hezkuntza eta lan arlokoak, baita espetxeetan egiten diren beste edozein motatakoak ere, profesionalei eta elkarte laguntzaileetako monitoreei sartzeko aukera emanez. Moduluko bakartzea bertan behera utzi, eta instalazio komunetan egiten diren jarduerak berreskuratu (gune soziokulturala, kiroldegia; ikastaroak…).
- Kanpoko irteerak berreskuratu epe laburrean eta, edozein kasutan ere, kanpoan egiten den erritmo berean eta osasun neurri berdinekin: irteteko baimenak, hirugarren graduak, edo beste edozein jarduera.

3. Hirugarren graduei buruz

- Hirugarren graduak finkatu alarma egoeran presoak egon diren baldintzetan.
- Alarma egoeran gizarteratze zentroak (CIS) husteko helburuaz eman diren baimenak eta atal irekiak ez kontatzea hartutako baimen bezala. Egoera hori aplikatu zaien presoei alarma egoera deklaratu aurretik hartu gabe zituzten baimenak errespetatuko zaizkie .